

I

Birjina gaztettobat zegoen

Andante

Bir- ji-na gaz- te-tto-bat ze-go-en Kre- a-za- le Jao-na-ren o- thoi-tzen, Nouiz
 et' ain-gu-ru-bat le-hi- a- tu- ki Bei- tzen ze-lu-tik jai-tchi Min-tza- tze-ra ha- ren.

Ainguria sartzen, diolarik :
 « Agour, graziaz zira betherik,
 Jaona da zourekin, benedikatu
 Zira eta haitatu
 Emazten gañetik. »

Maria ordian duluratu,
 Eta bere beithan gogaratu
 Zeren zian ouste gabe entzuten
 Houra agour erraiten.
 Hanbat zen lotsatu.

« Etziteļa, ez, lotsa, Maria ;
 Jinkoatan bathu' zu grazia :
 Zuk duzu sabelian ernaturen,
 Eta haorbat sorthuren
 Jesus datiana. »

Harek, duluraturik, harzara :
 « Bena noula izan daite hola,
 Eztudanaz gizounik ezagutzen,
 Ez eta ezaguturen
 Batere sekula ? »

« Ezpiritu saintiak hountia
 Izanen duzu hori, Maria. »
 Zu zirateke, ber ordian, āma
 Bai et'ere birjina,
 Mundian bakhoitza.

Mariak arrapostu ordian :
 « Hao naizu Jinkoren zerbutchian,
 Zuk errana nitan.biz konplitu. »
 Jaona aragitu
 Haren sabelian.

O Jinkoaren ama saintia,
 Bekhatugilen urgaitzarria,
 Zuk gitzatzu lagunt, bai Jinkoaren,
 Baita berthutiaren
 Bihotzez maithatzen.